

Antonio RIVERA BLANCO  
UPV/EHUko errektoregaiaren programa

Leioan, 2004ko otsailean

## **AURKIBIDEA**

- 3 Premisak
- 5 Irakasletoa nola, Unibertsitatea hala.
- 7 Ikerkuntza barik, ez dago unibertsitaterik.
- 9 Euskaraz.
- 11 Administrazio eta Zerbitzuak: eratu beharreko egitura konplexua.
- 12 AZP: pertsonentzako unibertsitatea.
- 14 Dirua egokiro administratzea.
- 16 Hiru campus, unibertsitate bakarra.
- 19 Ikasleak prestatzea: aurreneko konpromisoa.
- 20 Hartu eman jariora enpresarekin.
- 22 EHUKideak izateagatik, harro.
- 24 Europa: erronka berria, ilusio berria.
- 25 Munduan frutua... Unibertsitate irekia.
- 27 Unibertsitatea gizartean.

Euskal Herriko Unibertsitatea gure herriko unibertsitate publikoa dugu. Handik erantzukizunak datozkigu, gureak bakarrik direnak zein beste batzuekin konpartitzen ditugunak. Besteak beste:

- Populazioaren goi-hezkuntza, ekoizpenaren eta zerbitzuen arloetarako profesionalak sortu behar dituena.
- Ikerkuntzaren bidezko jakintza berriaren sortzea eta zabaltzea.
- Herritarren izaera aktibo eta kritikoa sustatzen duten balioen eta baliabideen sorkuntza.
- Euskara eta euskal kulturaren garapena.

Gure unibertsitatea, herritargoa integratzen duten erakundeen artean, garrantzitsuenetariko bat da, eta hortaz akordiorako esparruak sortzerakoan berebiziko erantzukizuna dagokio.

Komunitate unibertsitarian bizirik dauden ilusioak gure abiapuntu direla, kandidatura honen taldekideok uste dugu EHU gidatzeko gai garela, unibertsitatearen errealitatea sakonki aldatzen ari den une hauetan. Goi Hezkuntzako Europar Bateratze prozesua, unibertsitatearen gorputzean gertatzen ari diren aldaketak, unibertsitateak goi-hezkuntzaren monopolioa galdu izana eta gaurko gizartean bere lekua bilatzeko beharra, eta gure herriaren errealitate gaitza bera: erronka hauek guztiek urrats hau egitera bultzatu gaituzte, gogo handiz baina baita ere senez eta zuhurki jokatzeko asmoz, politikak definitzeko eta gauzatzeko akordioak gartsuki defendatuz baina baita ere kandidaturako kideok gestioan metatu dugun eskarmentu guztiarekin. Eta ahalegin prestu, arriskutsu eta asmo handiko honek merezi duen apaltasun guztiarekin.

Ekingo diegun helburu estrategikoak hauek dira:

- Europar Bateratze prozesuak dakartzan aldaketei gure unibertsitate barruko interesen adostasunaren irizpidez aurre egitea.
- Eraginkortasuna helburu duen gestio-kultura berri bat eratzea, akademikoen eta unibertsitateko administrazioaren arteko elkarrenganako konfidantzan oinarritu behar dena.
- Irakasleei irakats-lanean adore ematea, motibazioa maldan behera dagoen une honetan eta Europar Bateratzea irakasteko moduak zeharo aldatzera datorrenean.
- Gure ikasleak dimentsio profesional, etiko eta herritarrean formatzean datzala gure lehen helburua argi eta garbi jendaurrean aitortzea.
- Gure irakasleen ikerlanak sustatzeko behar diren pertsonal, tresna eta baliabideez hornitzea unibertsitatea.
- Irakasleen irakaskuntzako, ikerkuntzako eta kudeaketako osagarrien (euskotramoen) atzetik zelatan dauden ziurgabetasunak deuseztatzea.
- EHUK bere zereginari egokiro ekiten jarrai dezan, eta herri aurreratuen parametroen erreferentzia harturik, finantzabide arrunta ziurtatu beharko duen prozedura adostea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin.
- Halaber, Sailarekin hurrengo ekimen-plan nagusiak gauzatu ahal izateko adostasunera heltzea, alegia II Plan Unibertsitaria eta Inbertsioen Hainbat Urtetarako Plana. Azken honek, gainera, campusak garatzeko, Erakundeen Arteko Planen bidezko akordio paraleloak finkatu behar ditu.

- Gure Estatutuek jasotzen duten campusen errealitatea hitzez eta eginez errekonozitzea.
- Unibertsitateko hainbat arlotatik adierazi diren beharrianak kontuan harturik, AZPren plantila garatzeko programa zehatza Sailarekin negoziatzea.
- Enpresa munduarekin hartu emanak bizkortzea eta hedatzea, helburu bikoitzarekin: bide horretatik datozen diru-sarrerak areagotzea eta Unibertsitateak gizartearen esparru horretan eman behar duen zerbitzuaren eskakizunei egokiro erantzutea.
- Dagokigun partean eta gartsuki gure ikasleen lan-sarbideaz arduratzea.

Erronka estrategiko hauei erantzute aldera, gobernu-taldearen organigraman zenbait aldaketa proposatzen ditugu, mugitzen gaituzten asmoak islatzen dituztenak. Orain arteko Arlo Ekonomikoetarako Errektoreordetza desagertzea planteatzen dugu, gai ekonomiko guztiak Errektorearen eta Gerentearen ardurapean gera daitezen, zuzenean. Unibertsitatetik indarberritu nahi ditugun balio herritarrak zabaltzeko konpromisoaren lekuko, Kooperazio eta Partehartze Herritarrerako Errektoreordetza berria sortuko dugu. Era berean, Plangintza Errektoreordetza desagertuko da, eta haren ordeztu bi zuzendaritza berri sortuko dira, Bulego Estrategiko eta Kalitate Programen sustapenarekin lotua bata, eta erakunde balioespenaz arduratuko dena, bestea. Irakasleen prestakuntzarako zuzendaritza Irakasleen Errektoreordetzaren menpera pasatuko da; eta, orain arte Ikerkuntza Errektoreordetzan zeuden Nazioarteko Harremanak Errektorearen menpera pasatuko dira, horretarako zuzendaritza berezia sortuko baita. Honen ardura Europar Bateratze prozesurako ekimenak eta informazioak koordinatzea izango da.

## **IRAKASLEGOA NOLA, UNIBERTSITATEA HALA**

Unibertsitateak bere irakasleei lagundu behar die. Irakasleen hobekuntza bultzatu behar du eta irakats-lanetan zein ikerlanetan haien zeregina egokiro erraztu. Era berean, haien egonkortasun asmoak ahalbidetu behar ditu. Lege eta arau asko aldatu dira, eta aldatuko (ULO, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea, EHUren estatutu berriak, Europar Bateratzeak ekarriko dituenak), eta honek eraman behar gaitu, aurrena, aktiboki jokatzera irakaslegoaren gaian, eta hurrena, irakasleen karreraren garapena ahalbidetuko duten akordio zabalak bilatzera. Erreferentziako Plantilari esker gaur dugun ezagutza abiapuntu ona da desafio honi aurre egiteko. Aldaketan aurrean, gure jokabideak hau izan behar du, arau berriak zekenkeriatik urrun aplikatzea, ondo ikertzen eta ondo irakasten ahalegintzen direntzako mesedea bilatuz.

Eskuzabaltasunez jokatu behar da irakasle askok, lege aldaketa hauen aurrean, pairatzen duten ziurgabetasuna desagertarazteko orduan; izan ere, eskuzabaltasun hau, aurreko urteetan komunitate unibertsitariari adorez eta artez eman dioten lanaren ordaina baino ez da. Ikertzaile-irakasleen lanpostuen zerrenda ezinbestez beharko da berriztatu: oraingo adin-piramideari begiratu bat ematea besterik ez dago: 360 irakasle (daudenen %10) iritsiko dira jubilatzeke gehienezko adinera hurrengo hamarkadan, eta kopuru hau bikoiztu egiten da datozen hamabost urteak hartuz gero. Ikertzaile-irakasle berriak behar ditugu, kontratazioak irakats-betebeharrekin estu-estu lotu gabe. Ikertzaile-irakasle gazteak gureganatzeko programa egoki bat adostu behar da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin.

Irakasleek, bestalde, euren lanaren balioespena normaltasunez onartu behar dute, bai kanpoko ebaluatzaileena, bai ikasleena. Aldi berean, irakasleen benetako birziklatzea ahalbidetu aldera, nahitaez erraztu behar da kanpoko irakasgune zein ikerlanean joateko prozedura, eta egonaldiak bultzatu; hau egin ezean benetako hobekuntzari eusterik ez baitago. Irakaslegoak, eta honen egitura analizatzeko guztiz tresna baliosoen jabetu gara azken urteotan, prest egon behar du Europar Bateratzeak ekarriko dituen aldaketak asumitzeko (eskolak emateko moduan, titulazioen eskaintzan, ziklo osagarriak eskaintzen dituzten ikastegien arteko erlazioetan...). Esan gabe doa hau guztia gure hizkuntza bietan egin behar dela, eta beraz kontratazio berriei eta etengabeko hobekuntzaz ari bagara, arreta berezia jarri beharko dugula irakasle elebidunen prestakuntzan eta sartzean.

Labur, gure proposamena hau da:

- Ideien eta konbikzio zientifikoaren adierazpen librea babesten duen katedra eta ikerketa askatasunarekiko erabateko errespetua.
- Irakaslegoaren etengabeko hobekuntza jagotea; bai eta irakasleen promozioa eta egonkortasuna ahalbidetzea.
- Komunikazioetan gardentasunaren printzipioari eustea: irakasleek egokiro izan behar dute dagozkien gaien informazioa.
- Irakats-lana balioesteko sistemen berri irakasleei egokiro ematea, bai ikasleengandik datorrena, bai kanpoko ebaluazioena. Informazio honen izaera pribatua arretaz zaindu behar da.

- Goi Hezkuntzaren Europar Esparruaren errealitatearen ezagutza ona bermatzeko foroak sustatzea, titulazioen eskaintzan gertatuko diren aldaketei arreta berezia emanez.
- Gardentasuna, eraginkortasuna eta bizkortasuna irakasleengan eragina duten erabakiak hartzerakoan.
- Kalitatezko ikerkuntza bultzatzea, honen bidez gure irakasle gazteak doktoregora irits daitezten eta proiektuetan parte hartzeko aukera izan dezaten. Eta honekin batera, ikerlana errekonozitzea, adostuko diren formulen bidez, norberaren irakats-betebeharretan.

## **IKERKUNTZA BARIK, EZ DAGO UNIBERTSITATERIK**

Gure unibertsitateko ikerkuntzaren adierazleak hobetuz joan arren, oraindik ere badira gabezia estrukturalak arlo honetan. Asko zor baitzaio arlo honetan I Plan Unibertsitariaren garapenari, daukagunaren jarraipena bermatuko duen plan berria zehazteko eta gauzatzeko Sailarekin lortu behar den konpromisoa premia larria da. Ikertaldee (finkatuei, sendotze bidean daudenei, errendimendu handikoei) ezarri zaizkien definizioak zein exigentziak eskatzen dute hiruzpalau urteko finantzabidearen bermea, egokiro planifikatzea ahalbidetuko diena. Oraingoak finkatzea dugu helburu, bai eta berriak inkorporatzea ere. Bestalde, badira jakintza-esparruak, tradizioz, helburu zehatzak eta etengabeko baliabideen beharra uztartzen dituen talde-lanean aritzeko ohitura ez dutenak: ikerketa eredu hau esparru hauetan ere bultzatu behar da.

Barruko finantzabidearen urritasunak, batetik, eta merkatu gero eta irekiagoan lehiatzeko beharrak berak, bestetik, taldeak akuilatzen ditu eta irakasleak kanpoko finantzabidea bilatzera eramaten ditu, bai eta iker-sareetan parte hartzera. Ahalegin horretan Unibertsitateak ezinbestez eman behar die administraziorako eta proiektuen gestiorako laguntza nahikoa. Eta ikerkuntzako ahalegina irakats-zama definitzean errekonozitu behar da. Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren antolatze eta arautzeak asko lagundu du gure irakasleen ikerlanetan, eta asko egin dezake aurrerantz.

Bibliotekari bere atal berezia egokitu behar zaio hurrengo Plan Unibertsitarian. Izan ere, hurrenez hurren, eskariaren handitzeak, harpidetzen, datu-baseen... kostuen igotzeak, eta azken urteotako aurrekontuen luzapen amaigabeen ondorioek, konpondu beharreko gabezia nabarmenak sortu dituzte. IISIG-ek ere finantzabide egokia behar dute, eta batez ere, komunitate unibertsitariaren era askotako eskakizunei erantzuteko moduko pertsonala.

Ramón y Cajal edo Juan de la Cierva bezalako programen bitartez ikertzaile berriak inkorporatzea gure unibertsitatearen betebeharra da, gainontzeko zenbait unibertsitaterekiko atzean geratzen ari baikara arlo estrategiko honetan. Teknikari berrien kontratazioak bat etorri behar du gure ikertzaileentzako baldintza duinak bermatzeko borondatearekin; ikertzaileek dagozkien lanak baino ez bailituzkete egin beharko. Unibertsitateko campusetatik, Ikerkuntzari Laguntzeko Bulegoen bitartez, ikertzaileen beharrezanean erantzun behar zaie, gestioaren bizkortasuna eta eraginkortasuna lortzeko asmoz. Teknologiaren transferentziaren arloak –hustiakuntzako patenteak, esaterako– bultzatu behar ditu, bai gure unibertsitatea eta bai gure taldeak horrelako deialdi zein ekimenetan parte hartzera, ikerkuntzaren beste zenbait adierazletan lortzen ari garen mailalara hel gaitzen.

Ekimen hauek proposatzen ditugu:

- I Plan Unibertsitariaren ekimenen luzapena eta II Plana negoziatzen hastea.
- Errekonozitutako taldeen eredia sustatzea, azken urteotan egin den lez, eta formula hau presentzia gutxi duen arloetara hedatzea (gizarte-zientziak, giza-zientziak).
- Ikerkuntzara Zerbitzu Orokorren eredia bultzatzea, oraingoak garatuz eta berriak sortuz. Barruko eta kanpoko errentagarritasuna bilatu behar da zerbitzu hauetan.
- Kanpoko finantzabide-deialdietan gure taldeen parte hartzea areagotzea.
- Irakasle berriak iker-taldeetara sartzeko politika finkatzea.

- Irakasle gazteek kanpoko ikerguneetan egonaldiak egin ditzaten erraztea, haien karrera profesionala bultzatzeko asmoz.
- EHUren presentzia Ramón y Cajal programetan areagotzea, eta orain arte garatu diren ekimenak balioestea.
- Doktorego ondoko ikertzailearen irudia ahal den neurrian ugaltzea, Juan de la Cierva programa eta antzekoak erabiliz.
- Dagokien finantza programa gorabehera, EHUko ikerkuntza bekadunen baldintza profesionalak eta gizarte eskubideak jagotea.
- Ikerkuntza sustatzeko eta ikertzaileak formatzeko tresna den neurrian, Biblioteka Unibertsitariari lehentasuna ematea.
- I+G+b jarduerentzako espazioak berdefinitzea eta espazio berriak sortzea.
- Kanpoko finantzabideaz ikertzaileak zein laguntzaileak kontratatuzko kondizio bizkorrak sortzea, kontratatuen lan-baldintzak bereziki zainduz.
- EBren VI Programa Markoaren, I+G+b Plan Nazionalaren eta Euskal Herriko ZTBPrek prestakuntzan, aurkezpenean, garapenean eta ebaluazioan EHUko irakasle-ikertzaileen presentzia eta parte hartzea praktikan erraztea.
- EHUren europar eta nazioarteko presentzia areagotze aldera, beste unibertsitate eta ikerguneekiko kolaborazio egonkorra bultzatzea.
- EHUko Estatutuek Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntza Batzordeari ematen dizkieten eskumenen garapena akuilatzea, gestiorako organo eraginkorra izan dadin.
- Ikerlanen ebaluazioaren eta kalitatearen kulturari jarraitasuna ematea eta sustatzea.
- Kanpoan presentzia izanez eta ikertzaile-irakasleak jendaurreko eztabaidan parte hartzea bultzatuz, unibertsitatea pentsamendu zientifiko, teknologiko eta artistikoa gizartean zabaltzeko eragile bilakatzea.
- Ikerkuntzako Unibertsitate Institutuei buruzko politika balioestea eta berregitea.
- IISIG-ak plantila egokiaz hornitzea.
- EHUko ikertzaile zein ikertaldeak GIGetan integratzeko eredua zehaztea.
- Ikerkuntzarako laguntza teknologiko eman behar duen AZPrek plantila zehaztea (deialdietan zein kontratu-programan parte hartuz, edo Sailarekiko hitzarmen baten bitartez).
- Campusetan Ikerkuntzari Laguntzeko atalak sortzea (espedienteen tramitazioa, deialdiak, administrazio-kudeaketa...).



## EUSKARAZ

Jakina. Guztion ahaleginari esker, II Planaren emaitzak begi bistan daude. Eta arlo honetan mugitu bagara, gurekin batera ikasleen eskariak ere gorantz egin du. Baina, ibiltzeak perspektiba aldatzea dakar, eta aurrerapausoak egin baditugu, hutsuneak non dauden hobeto ikusteko moduan gaude. Ekimen zehatzak proposatzen ditugu, euskaraz gehiago eta hobeto egin dezagun. Baina hauen azpitik ikuspegi oso bat ere aurkezten dugu: euskarak unibertsitate osoa busti egin behar du; gure hizkuntza biek esparru guztietan elkarbizi behar dute. Izan ere, elkar komunikatu gabeko esparru itxiak sortzeak, gero eta handiagoak izan arren, ez dakar benetako normalizazioa, benetako elebitasuna.

Martxan dauden hainbat ekimen-lerrori eutsi behar zaio

- Irakasle elebidun berrien kontratazioa, gutxienez orain arteko irakaskuntzaren euskalduntze erritmoa mantendu dezagun. Beraz, hau Plan Unibertsitari berriaren ekimenetako bat izango da.
- Euskara Zerbitzua indartzea eta finkatzea, eta haren bitartez ondoko ekimenetan aurrera egitea:
  - Irakasle-ikertzaileen hobekuntza, on-line ikastaroei arreta berezia emanez. Irakasleen askapen aldiekin lotutako birziklatze eta hobekuntza ikastaroen programa bat martxan jartzea.
  - Euskarazko kalitatezko irakaskuntza sustatzeko zerbitzuak: EHULKU, Testu Orrazketa, ikasmaterialak sortzeko aholkularitza...
  - Terminologiaren normaltze lanak.
  - Oinarrizko bibliografia euskaratzea.
  - Euskararen erabileraren normalizazioa administrazioaren arloan, eta itzulpen zerbitzuen eskaintza handitzea.
- Irakasleen testugintza sustatzea eta argitaratzeko formula malguak garatzea, edizio elektronikoen bidez bereziki.
- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eragina izan dezaketen argitalpen lerro bereziak garatzea.
- Hirugarren zikloan euskararen erabilera sustatzeko beken programak.
- Euskararen normaltzeaz arduratzen diren beste erakundeekiko kolaborazio politika, eta euskalgintzan unibertsitatearen presentzia areagotzea.
- AZPen erabilera planak eta banakako planak garatzea; eta hau eraginkorra izan dadin, gutxienez 45 plaza izan beharko lituzkeen bost orduko askapenen kupo batera heltzea. Honek ere Plan Unibertsitariaren atal bat osatu behar du.

Eta honi guztiari, normaltze politika global batean integratze aldera, ekimen hauek gehituko dizkiogu:

- Irakasle-ikertzaileen euskalduntze pasiboa bultzatzea, eta unibertsitateari egiten zaion zerbitzua baita, intzertibatzea.
- Irakasle elebidunek hobekuntzan egiten duten ahalegina sustatzea eta errekonozitzea, eta perspektiba berean –alegia, intzertibatzea merezi duen zerbitzuarena- AZPk hobekuntzan eta erabilera planetako partehartzean egiten duena.
- Gure eguneroko paisajea, agiriena zein lokalena, benetan elebiduna izan dadin, behar diren ekimenak gauzatzea. Arreta berezia eman behar zaie gestioa eta barne komunikazioa bideratzen dituzten aplikazio informatikoei.
- Curriculum elebiduna eskuratzeko askatasuna egia bihurtzea, eta honetarako, irakasgai bakoitzeko hizkuntza hautatzeko aukera ematea ikasleei.

## **ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUAK: ERATU BEHARREKO EGITURA KONPLEXUA**

- Administrazioa gaurkotzeko behin-behineko bulego bat sortuko dugu, oraingo antolakuntzaren egoera aztertzeko eta erakunde formalki deszentralizatuaren eta funtzionalki deskontzentratuaren zentzuan neurri zehatzak proposa ditzan.
- Ikastegien, Sailen, Institutuen eta zerbitzuen arteko harremanak sustatzeko egiturak diren neurrian, campusei berebiziko garrantzia emango zaie.
- Campus eta ikastegiekin kontratu-programak egingo dira, esan nahi baitu denbora baterako baliabideen transferentziak egokituko zaizkiela, helburu jakin batzuetara hel daitezten.
- Gobernu Kontseiluan erabakitakoaren arabera, eduki argi eta zehatzak izango dituzten egitura organikoa eta organigrama egingo dira, administrazio eta zerbitzu unitateak integratuz.
- EHUren prestakuntza planean, gestiorako tresnei eta teknikei buruzko eskaintza berezia egongo da.
- AZPk kalitate zein hobekuntza prozesuetan parte hartuko du, eta betekizunetan eragina izango duten irizpide, prozedura nahiz emaitzen berri izango du.
- Lan baldintza egokiak sortuko dira: espazio seguru, osasuntsu eta lagunkoiak prestatuko dira, AZPrentzat erabiltzaileentzat bezala.
- AZPri dagozkio gestiorako prozeduren eta beharrezko sustapen prozeduren garapena, bai eta unibertsitate-organoei eman behar zaizkien laguntza eta aholkularitza. Barneko eta kanpoko zerbitzuen atari bat prestatzen hasiko gara, web-orriaren bitartez.
- Denbora baterako Gestio Planak egingo dira, Zerbitzu Orokorren, Campusen eta Ikastegien arloetarako.
- Kalitate, prebentzio eta ingurumen plan integralaren garapena bultzatuko da.

## AZP: PERTSONENTZAKO UNIBERTSITATEA

- Espainiako Unibertsitateetako Irakasleak/AZP eta Ikasleak/AZP ratio guztien azterketa konparatiboetan azaleratzen den defizitari aurre egiteko, datozen lau urteotan 300 lanpostu berri sortzeko plana negoziatuko dugu Jaurlaritzarekin. Era berean, oraingo bekadunen kopurua murriztuko da, dimentsio egokira eramanez.
- Epe ertaineko plangintzarako tresna bezala, unibertsitate-zerbitzua ematen dela bermatzeko behar diren beharrian egokienak finkatuko dituen erreferentziako plantila osatuko da.
- Oraingo zenbait lan-postu funtzionaritzatzeko lege aukerak aztertuko dira.
- Zenbait postu behin-behinekoz esleitu ahalko dira, kontratu-programen deialdien eta helburuen betetze mailen arabera, beti ere langileen eskubideak bermatuz.
- Berehala ekingo zaio sindikatuekin hitzartu den lanpostuen balioespenerako prozesuari. Sei hilabeteren buruan bukatuta egon beharko du.
- Berehala Enplegu Eskaintza Publikoa egingo da, eta karrerako funtzionarioei dagozkien hauta-prozesuak. EHUen emandako zerbitzuak ahal den eta hobekien baloratuko dira, beti ere legearen mugen barruan.
- Campusek gestionatuko dituzten campuseko lan-poltsen funtzionamendua proposatuko da.
- Zerbitzu-betekizunetako postuak betetzeko arautegi bat proposatuko da.
- Jardunaldia egiteko gaurko egutegiari alternatibak aztertuko zaizkio.
- Pentsioen Plan-Fondo bat ezartzeko aukerak aztertuko dira.
- Oporraldiak, ikastegien jarduera gutxiko aldietan hobetsiko dira.
- Prestakuntza eta Hobekuntza Batzordeak urteroko jardueren programa finkatuko du, EHUren plangintza estrategikoarekin eta Errektoreak urtero markatutako helburuekin bat.
- EHUren Prebentzio Zerbitzuan bete gabe dauden postuak betetzeko hauta-prozesuak burutuko dira.
- Campusen arteko Lan Ziurtasun eta Osasun Batzordearen plangintza bultzatuko da, eta campuseko batzordeen jarraipen iraunkorra ere.
- Lanpostuetako arriskuen balioespina burutuko da.
- Azterketa medikuen eta prebentzio txertoen kanpainei jarraipena emango zaie.
- Laborategi esperimentaletako araei, gas instalazioei buruzko araei eta hondakinak batzeko eta gestionatzeko araei, izaera orokorra emango zaie.
- EHUekin zerbitzuak ematea kontratatuko duten enpresei ziurtasun neurriak eta lan osasunekoak bete ditzaten eskatuko zaie, eta lehiaketan bakoitzak arlo honetan duen garapena baloratuko da

Negoiazioa: interesen oreka

- Lan harremanen eredia birmoldatuko da. Arazoei irtenbidea emateko tresna eraginkorra behar du izan, baita ere unibertsitatearen eta bertan lan egiten dutenen interesen arteko oreka egonkor iraunkorra bermatzekoa ere.
- Aritzeko Protokolo bat sortuko da, bilera sindikalen dinamika hobetzeko. Hor arauak ezarriko dira (negoziatzeko, kontsultatzeko zein informatzeko) gaiak tratatzeko, aldez aurreko dokumentaziorako, deialdietarako, aktetarako eta bilerak bideratzeko.
- Errektoreak proposatuta, Batzorde Kontsultiboari audientzia emanda, eta ikastegien, sailen, institutuen eta pertsonala ordezkatzeko organoen txostenak aztertuta, Gobernu Kontseiluak AZPren politika definituko du.
- Aurrekoak erreferentzia moduan hartuta, eta oraingo unibertsitatearen gizarte errealitatera eta egoerara egokitzeko alaketak proposatuz, konbenio kolektibo berria eta lan baldintzei buruzko akordio berria negoziatuko dira.

## DIRUA EGOKIRO ADMINISTRATZEA

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin harreman jarrioren marko bat bilatuko da, elkarrenganako konfidantza oinarritu behar dena.
- Eskatzeko eman egin behar da. Autonomiaren printzipioa gestioaren erabateko gardentasunarekin uztartzen saiatuko gara.
- EHUren finantzabiderako marko berriaz azterketa bat egingo da. Hor diagnostiko bat egongo da, eta beste unibertsitateekin nahiz Euskadiko gainerako hezkuntza sistemarekin egindako azterketa konparatiboa ere bai.
- Sei hilabeteren buruan finantzabide egonkorra negoziatu nahi dugu, lau urtean EHAren aldetik BPGren %1ren pareko transferentzia zuzenen bolumena izateko, eta EHUren aurrekontu osoa BPGren %1,25 izan dadin.
- Finantzabidearen egiturak hau bildu beharko du:
  - Aparteko ekarpena hasieran, azken urteotako aurrekontuen luzapenek eta AZPren plantilaren defizitak ekarritako kalteak konpentsatzeko.
  - Finantzazio arrunta, kalitate estandar homologagarria sustatu behar duena.
  - Euskalduntzea.
  - Inbertsioen Hainbat Urtetarako Plana
  - II Plan Unibertsitaria.
- Aurrekontuak prestatzeko modua sinplifikatzea.
- Aurrekontuak prestatzerakoan eta aplikatzerakoan, gestio eraginkorraren irizpideak jarraituko dira:
  - Kontabilitate analitikoaren, unibertsitatearen jardueraren benetako kostuaren neurria eman dezakeena.
  - Programetan antolatutako aurrekontua.
  - Prozedura ekonomiko-administratiborako esku-liburua.
  - Gestio ekonomikoaren deszentralizazio prozesua areagotzea, eta beharrezkoa bada, hedatzea.
- Aurrekontuen gestioa hobetzeko plana burutuko da, aurrekontuaren egikaritzea denboran proportzionatua izan dadin, eta kapituluaren arteko transferentzien kopurua murriztu dadin.
- Kanporako zerbitzuen alokairuen bidezko sarrerak gestionatzeko arautegi berria proposatuko da. Sarreraren %50 ikastegian berrinbertitu ahaliko da, eta beste %50 campusean, kasu bietan inbertsioak helburuak betetzeko konpromisoari lotuko zaizkio.
- EHUk bere sarrera eta gastuen barne kontrola bermatuko du, legezotasun eta eraginkortasun printzipioen arabera.

- Aurrekoa betetzeko, Barne Kontrolareko Unitateak a posteriori kontrolak egitea bultzatuko da. Unitate hau Errektorearen menpean egongo da, zuzenean, eta Gerentearekiko autonomia funtzionala izango du.

## HIRU CAMPUS, UNIBERTSITATE BAKARRA

Joanak joan, gure unibertsitatearen campus-egiturari buruzko eztabaida amaigabeen denborak igaro egin dira. Eta eztabaidekin, tirabirak ere desagertu dira gure eguneroko panoramatik. Zorionez, hiru campuseko unibertsitate honen errealitate bizia eratuz eta normalduz joan da; bizirik dagoen oro bezala, hori bai, urrats bakoitzeko negoziatzea eta adostea eskatzen du. Zentzu urria du egun campus anitzeko ereduaren gainean hitz egiteak. EHUren Estatutuek, campus guztietan bizi garen errealitateetik oso gertu dagoen zerbait jaso dute, eta onetsi ere. Errealitate honetan sakontzen jarraitu behar dugu, eginaren eginaz, eta erabakiak hartzerakoan etengabeko kontsentsua bilatuz. Deszentralizazioa eta deskontzentrazioa –ezberdinak izanda ere, eztabaida terminologiko antzu batera garamatzatenak- beharrezkoak ditugu, eta hainbat zerbitzu campusetara eramatea konpli da, eraginkortasuna aregatzeko eta komunitate unibertsitari osotik gertuago egoteko. Arazoa baino, campusetako egitura abantaila da, gure lurraldeetako tokian-tokiko errealitateekiko lotura onuragarria bermatzen baitu, bai eta era guztietako erakunde eta entitateekiko harreman jario eta emankorra ere. Campusek komunitatearentzako zerbitzuen eskaintza handitu behar dute, azpiegiturak eta kalitatezko ekipamenduak sortzen jarraitu, EHUren marko orokorreko irakats- zein iker-eskaintzan euren berezitasuna definitu, eta tokiko beste erakundeekiko kolaborazioa erraztu, bereziki goi-hezkuntzan ardura ez izanik geu behar gaituztenekin... geuk ere haiek behar ditugun bezalaxe.

Puntu honetan, daitezkeen ekimen guztiak xahutzeko asmorik gabe, hauek azpimarratzen ditugu:

- Campusak hedatzeko erakunde-protokoloetan adostu diren edo adostear dauden inbertsioak gauzatzea eta garatzea, eta campus bakoitzaren beharrian nabarmenak jasoko dituen Inbertsioen hainbat urtetarako Plan berria bultzatzea.
- EHUk unibertsitateen kirol esparruan duen mailari erantzungo dioten kirol instalazioak egokitzea eta garatzea.
- Unibertsitate-ostatuaren eskaintza handitzea eta ugaltzea (egoitzak, apartamentuak, belaunaldien arteko ostatu konpartituak...).
- I+G+b-en, IKT-en, Dokumentazio Aurreratuan, Ikerketa Institutuetan, inbertsioak bultzatzea.
- Ikastegiek eskatzen dutenean, erreformarako plan globalak diseinatzea, honen bidez ziurtasun arloko arautegira egokitzeko, ezintasunak dituzten pertsonen sarbide eta integrazioa bermatzeko, eta irakaskuntzaren beharrian berriek eskatzen dituzten espazio berriak diseinatzeko (alegia talde txikiak, mintegiak, tutoriak, ikerkuntza, talde lana...).
- Gela informatiko irekien politika areagotzea, ikasleek euren prestakuntza lanak egiteko aukera izan dezaten.
- Europar Bateratzeak ekarriko dituen aldaketez eta gogoetez baliatuz, ikastegiak bereiztera jotzea, bakoitzaren titulazio, titulazio bikoitz, graduondoko titulu eta berezitasun ikastaroen eskaintzaren bitartez.
- Enpresetako borondatezko praktikak eta espiritu ekintzailearekin zerikusia duten jarduerak bultzatzea, enpresak sortzeko eta enpleguaren bilaketa errazteko asmoz.



- EHUren kanpoko proiektzioa bultzatzea, enprekin zein erakunde publiko eta pribatuekin harremanak garatuz. Honen bitartez jakintzaren transmisioa, zerbitzu berrien eskaintza, prestakuntza berrien eraketa, eta oro har, elkarrenganako laguntza garatzea bilatzen dugu.
- Eleaniztasuna bultzatzea ikasle, irakasle zein AZPrengan. Prestakuntzarako programa berezien bitartez, eta mugikortasun programak gauzatuz, atzerritar hizkuntzen ikasketak erraztea. Hizkuntzen Institutuaren ideia berriro kontsideratzea.
- Tokiko eta lurraldeko plan estrategikoetan parte hartzea, bai eta EHUren mikroplanetan ere.
- Ekimen berriak zehazteko eta finantzatzeko lanetan tokiko eta lurraldeko entitateekin kolaboratzea.
- Unibertsitate- eta teknologia-esparruko beste entitateekiko kolaborazioa bultzatzea (Parke Teknologikoak, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia, G-9...).
- Administrazio lanak deszentralizatzeko prozesuak areagotzea, zerbitzuak erabiltzaileengana hurbiltzeko, administrazio tramiteak bizkortzeko eta campuseko Errektoreordetzak zein ikastegiak erabakiak hartzearen eta gestionatzearen arduradunkideak bilaka daitezen.
- Oraingo hutsuneak beteko dituen zerbitzuen garapenerako plan bana ezartzea campusetan (mantentze-lanak, arkitektura, lan-sarbidea, antolakuntza akademikoa, Ikerketaren Emaizak Transferitzeko Bulegoa, ikerkuntzari laguntzeko zerbitzuak, zerbitzu juridikoak...).
- Jendea atenditzeko leihatila/bulego bakarrak sortzea campusetan.
- Kalitate, ingurumen, lan-arriskuen prebentzio larrialdi-planen plan integrala bultzatzea.
- Campusetako zerbitzuak garatzea, jarduera eta arlo hauetan: enpresak sortzeko prestakuntza, ikasleei zuzendua; ezintasunak dituztenen beharrei erantzutea, eta laguntza psikologikoa ematea; kirol eta kultura prestakuntzarako programak; ikasleen informazioa eta orientazioa; eztabaida eta informaziorako foroak.
- Bideokonferentziaren erabilera bultzatzea, unibertsitatearen eguneroko bizitzan.

Eta campus bakoitzaren esparruan, azpiegiturei dagokienean bereziki, hauek dira berehalako proposamen eta ekimenak:

- Arabako Campusean, Erakundeen arteko hitzarmeneranzko urratsak egin, honen bitartez kirolgune bat, lurpeko parking bat eta I+G+i-gune bat ostatuko dituen eraikina egiteko asmoz . Halaber Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarekin eta Hezkuntza Sailarekin egiten ari garen gestioei eustea, Hezkuntza Fisiko Euskal Institutuaren behin-betiko integrazioa EHUn gauzatzera iritsi gaitzen.
- Bizkaiko Campusean, Leioako plataformaren zaharberritzea; Bilboko eraikinen sakabanaketari aurre egiten joateko EHUren politika ekintzailea definitzea, eta Errektoregoa Bilboko eraikin batera eramateko aukera aztertzea.

- Gipuzkoako Campusean, unibertsitate-egoitza eraikitzea, I+G+b eraikina egitea, eta Dokumentazioaren Zentru Aurreratu eta Bibliotekarentzako eraikina egitea ahalbidetuko duen Erakundeen Arteko Protokoloa garatzea.

## **IKASLEAK PRESTATZEA: AURRENEKO KONPROMISOA**

Berrogeita hamar mila ikasle inguru ari dira egun EHUn ikasten. Unibertsitateak prestakuntza akademikoa ez eze, prestakuntza integrala eman nahi die, haien lan-sarbidea eta gizartean haien parte hartze aktibo eta ekintzailea ahalbidetuko dizkieten jakintza- eta giza-baliabideak emanez. Zentzu honetan, unibertsitate publikoari, bai arlo profesionalean eta bai herritarren prestakuntzan ere, ardura eta erantzukizunak dagozkio. Gainera gure ikasleen perfila aldatuz joan da: gure ikasgeletara datorrena ez da soilik gazte jendea. Etengabeko prestakuntza profesionaletik datorren ikasleagoa ere hor dago, Esperientzia Geletakoa edo goi-hezkuntzako beste mekanismo batzuek bideratzen dutena bezalaxe. Ikasle presoenganako zerbitzua naturaltasunez onartu behar da. Gainera haien gizarteratzeko prozesuan goi hezkuntza guztiz lagungarria delako uste osoa dugu. Unibertsitate publikoak Kartzeletako Erakundeekiko hitzarmen bat gauzatzeko prest egon behar du, are gehiago euskaraz irakasten duen bakarra denean.

Ikasleen parte hartzea bultzatu gabe, zail samar egin daitezke egokiro unibertsitate-lanak. Edozein unibertsitatetan, ikaslego ekintzaile eta partehartzailea kalitatearen bermea da. Hau, baina, ez da mugatu behar Kontseiluetako presentziara, edo unibertsitatearen gobernu organoetan egotera; baita ere ikasleen asoziazionismoa piztu behar da, azken urteotan erdi lo egon baita gurean.

Ikasleen elkartrukeak ere, Espainiako, Europako eta Ameriketako bete unibertsitateekin, lehen mailako helburutzat hartzen dugu. Informatikan, hizkuntzetan eta beste errealitate eta kulturarekiko harremanetan prestakuntza egokirako sarbidea, gure ikasleei zor diegun gehigarria da.

Ekimen lerro hauek proposatzen ditugu:

- EHUren Gobernu Organoetan ikasleen partehartzea bultzatzea.
- Ikasleak ordezkatzeko organoak indartzea, baliabide gehiago emanez.
- Campusetako Ikasleen Kontseiluak sortzen laguntzea, ikasleentzako zerbitzuen indartze eta kalitatea bermatzeko asmoz.
- Unibertsitarien elkarre-bizitza sustatzea, Kooperazioa eta Partehartze Herritarrerako Errektoreordetza berriarekin kolaboratuz.
- Ikasle guztien prestakuntza bermatzeko beken politika egokia bultzatzea.

## HARTU EMAN JARIOA ENPRESAREKIN

Unibertsitate prestu batek bere inguruko produkzio eta zerbitzuen errealitatearekiko harreman estuari eutsi behar dio, estrategikoki. Ez “enpresa munduaren beharizanen” menpean jarri behar delako, baina bai enpresetatik datozen eskariak kontuan harturik zubiak eta elkarrizketa bermatzeko. Profesionalak prestatzea dugu helburu, eta beraz saia gaitzen ahal den prestakuntzarik errearena eta lan-munduarekin lotuena ematen, bai eta gure graduatuen lan-sarbidea errazten. Enpresetako praktikek “mundu errealer” hurbiltzen dituzte gure ikasleak, unibertsitatea utzi baino lehen. Gure unibertsitateak baztertu ezin dezakeen prestakuntza gehigarria dugu hau. Era berean, enpresetako praktiketarako prozedura eroso eta zuzena finkatu behar dugu, maiz eta hainbat arazoirengatik pairatzen dugun ziurgabetasuna desagertaraziz.

Unibertsitate eta enpresaren arteko kontratuen bidezko teknologiaren transferentzia ere ezinbesteko betebeharra da. Bide hau bultzatzea dugu helburu, baina horretarako gure ikertzaileen lana erraztu behar da, administrazio prozeduraren eta kontratuen gestioaren konplexutasuna ezin saihestuzko oztopo gerta ez dadin. Kanpoko baliabideak gureganatzeko mailak balio bikoitza izango du aurrerantzean: batetik, nahitaezkoa izango da, unibertsitateen finantzabide arrunta nola dagoen ikusita, eta bestetik, unibertsitateen ospea neurtzeko sailkapenetan oinarritako erreferentzia izango da. Egun, nahiz eta azken urteotan aurrera egin, EHUK, pisu eta izaeragatik legokiokeen lekua ez du inolaz ere okupatzen. Era berean, Ikerketaren Emaitzak Transferitzeko Bulegoa campusetara eramatea berehalako helburua da.

Jakin badakigu enpresak sortzen zaila dela, baina sustatu behar da gure ikasle zein irakasleek enpresak sortzeko egin dezaketan ahalegina. Honek eragin bikoitza du, bai teknologiaren transferentzian, bai ikaslearen lan-sarbiderako mekanismoetan. Hainbat arlotan, gure ikasleek autoenplegurako formulak jo beharko dute, enpresa publiko eta pribatuei zerbitzuak eskainiz. Enpresa-mintegiak sortzeko emaitzak izango ditu etorkizunean, gaur daukagun ereduari jarraituz edo tokiko erakundeekin kolaboratuz.

Gero eta argiago dago unibertsitateek profesionalen etengabeko prestakuntzaz arduratu behar dutela, honek onura baitakar ikuspuntu askotatik, eta aurrena, gizartearen beharriari erantzuten diegulako. Gure master eta ikasketak osagarrien eskaintza ez da mugatu behar sailen edo irakasle taldeen inizatibatik sortzen dena. Aitzitik, EHUK “goitik” diseinatu behar du, arlo horretako prestakuntza beharrak aztertuz eta banan-banan erantzun egokia emateko asmoz, eskaintzaren programa globala.

Gure egitasmo hauek honela labur daitezke:

- Praktikak eta lan-sarbidea (Praktikak, Lanbila) bideratzeko dauden sistemak garatzea eta hobetzea, orain arte kontuan hartu ez diren arloak ere sartuz.
- Ikastegietan, Administrazio Pertsonalaz eta bekadunetz sustatutako Karrera Zentroak garatzea (zenbait eskoletan badaude horrelakoak), praktiken gestioan, lan-poltsan, Erasmus ikasleekin... laguntza eman dezaten.
- Enpresetako praktiketarako hitzarmenak ugaltzea eta dibertsifikatzea, batez ere eskaintza urriko arloetan, eta arlo hauen ikaslearen eskaria piztea.

- Giza-zientzien, zientzia esperimentalen eta gizarte-zientzien arloetako lan-sarbiderako oztupoak aztertzea, hor baitaude arazo nagusiak aspektu honetan. Era berean, gure doktoreen lan-sarbidean dauden zailtasunei aurre egitea.
- Ikastegietatik graduatuen enplegu maila aztertzeke inkesten jarraipena egitea.
- Unibertsitate-Enpresa kontratuak ugaltzea, bai Euskadiko Enpresa Txiki eta Ertainekiko hitzarmenen bidez, bai deialdietan parte hartuz (Eusko Jaurlaritza (INTEK), Ministerioa (PROFIT), Europar Batasuna (BRITE, CRAFT)).
- Zenbait erakundek unibertsitate-enpresaren arlo honetan diseinatzten dituzten lerro estrategikoetan EHU egokiro txertatzea (Eusko Jaurlaritza, Diputazioak, Udalak).
- Ikerketaren Emaitzak Transferitzeko Bulegoaren prozesuak sinplifikatzea, bizkortzea eta erabiltzaileengana hurbiltzea. Ikerketaren Emaitzak Transferitzeko Bulegoak campusetan zabaltzea.
- Teknologia transferitzeko jarduerak kudeatzeko eta zabaltzeko datu-baseak hobetzea.
- Deialdien gestio administratiboan laguntzea eta prestakuntza ematea.
- Daukan gizarte betekizunagatik, duen eragin ekonomikoagatik eta unibertsitateen kalitatearen analisisan izango duen proiektioagatik, enpresekiko kontratuen bidezko teknologiaren transferentzia ekimen garrantzitsu estrategikoa delako ideia zabaltzea.
- Campusetan Transferentzia Guneak sortzea, ikerkuntza aplikatuan, aholkularitzan eta inguruko enpresei asistentzian erreferentzia izan daitezkeenak. Erakundeen arteko kolaborazio leiala bultzatzea, tokiko eta lurraldeko entitate publiko zein pribatuekin.
- Oinarri teknologikoa duten enpresak sortzea: Spin-off akademikoa.
- EHUko ikertzaileen patenteen hustiakuntza sustatzea.
- BIC-Berrilaneekin eta enpresen mintegiarekin gaur dauden ekimenei eustea. Campusetan Ekintzaileen Bulegoak sortzea aztertzea, kultura hau zabaltzeko eta inizatiba praktikoak gorpuzteko asmoz.
- Etengabeko ikastaroen programa edo katalogo bat prestatzea. Plantea daiteke, baita ere, honetara bakarrik dedikatuko litzatekeen zuzendaritza bat sortzea.

## **EHUKIDEAK IZATEAGATIK, HARRO**

Unibertsitate hedakuntzak bi ekimen esparru nagusi ditu: gizartean EHUren irudia proiektatzea eta ikasleentzako kulturgunea sortzea. Halaber unibertsitateak sortzen duen jakintza gure ikasleak ez direnen artean ere zabaldu nahi du.

EHUKideak garelako edo izan garelako harro egoteko sentimenduaz ez gara asko arduratu; eta unibertsitate publiko batek ezin du hau baztertu. Gure logoaren erabilera bateratua, barruan eta kanpoan, norabide horretako urrats bat izan da. Gure burua zigortzeko grina erakusten badugu ere, maiz askoz irudi hobea du gutaz gizarteak, geuk uste baino. Lehen mailako ekimena dugu gizarte horrekiko lotuneak sendotzea, campusen egiturak aparteko abantaila ematen baitigu horretarako. Ikastegietako ikasle-ohien elkarteak sortzea (EHUko ikasle-ohien elkartera bidean) egingarria da.

Campusek komunitate unibertsitariaren esku, eta bereziki ikasleen esku, jartzen duten kultura eskaintza aberatsa da, oparoa, eta campus bakoitzeko izaerara egokitua. Baina koordinatze maila igo behar da, homogeneitatea handitzeko eta zenbait ekimenen errentagarritasuna bermatzeko. Komeni da EHUren kultura-gestioaren profesionaltzeaz pentsatzen joatea, zuzendaritza akademikoen ordez teknikariak ardura daitezen honetaz. EHUK apustu egin behar du berrikuntzaren alde, eta sortzaile zein artista berrientzako guneak sortu. Unibertsitatetik kanpo normalean aurkitzen ez duten eskaintza izan beharko lukete gure ikasleek, ez baita bestalde onuragarria gainontzeko kultura kudeatzaileekin, publiko zein pribatuekin, lehia antzuan sartzea.

Labur esanda:

- Denok partaide sentitu gaitezkeen irudi korporatibo bateratua bultzatzea.
- Errepresentazio gauzakien politika egokia garatzea EHUren logoa ustiatzeko.
- EHUren ondare-funtsa eratzea, campusek ikasleentzat egiten dituzten lehiaketetan erosten dituzten lanak bilduz. Artelanen katalogo hau unibertsitate zirkuituetan, edota unibertsitatez kanpokoetan, erakuts liteke.
- Campusen kultura eskaintza mantentzea, aldi berean Errektoreordetzatik zuzendutako koordinazioa areagotuz, errentagarritasunaren eta homogeneitatearen bila.
- Kooperazio eta Partehartze Herritarrerako Errektoreordetzarekin batera, EHUren foro bat sortzea. Gaurko euskal gizartean eragina duten arazoaren gaineko eztabaidagunea eskaintzea dugu helburu.
- Unibertsitariei jarduera eta zerbitzu kulturalak lortzerakoan abantailak emango dizkien Kultura Txartela sortzeko urratsak egitea.
- Gure ikasleen sorkuntza sena sustatzea. Horretarako Literatur Lehiaketak, egunkarietako artikulu lehiaketak, itzulpengintza eta artetegintzarenak, antzerki taldeen promozioa, dantza ikuskizunak eta beste zenbait kultura adierazpen bultzatuko dira.
- Gure kultura gestioa profesionaltzeko eztabaida irekitzea, kultura teknikarien kontratazioa mahi gainean jarritz.
- Bideokonferentziari eta sareari atarrementua ateratzea kultura ikuskizunetan (Bartzelonako Lizeoko operen eredu berriari jarraituz).

- Web-orri egokia egitea (Euskadin gurea bisitatuenean artean dago) eta komunikazio politika bat definitzea, gure campusen errealitatea eta estrategia komun baten beharra kontuan harturik. Arlo hauek Errektorearen bulegoan egon behar dute.

## EUROPA: ERRONKA BERRIA, ILUSIO BERRIA

Europako Goi Hezkuntzako Espazioa (EGHE) eraikitzeko lehen aldia martxan dago, eta hasierako urratsak geldo samarrak izan badira ere, logikoa dirudi Boloniako Deklarazioaren helburuak, eta geroko beste batzuk ere, beteko direla pentsatzeak. Unibertsitateek arin erantzuteko ahalmena erakutsi behar dute lehen aldi honetan, honek baldintzatuko baititu norberaren posibilitateak epe ertain eta luzean; oso espazio lehiatsuan murgilduko gara eta.

Boloniako Deklarazioaren arabera, unibertsitate-titulazioen egitura hiru mailatan eratzen da: gradua, graduondokoa eta doktoregoa. Duela gutxi Berlingo Gailurrean, “lehen, bigarren eta hirugarren ziklo” erabili izan da, baina ez gaur gure artean termino hauek duten zentzuarekin.

Pentsatu behar da europar unibertsitate bati ospea ez zaiola etorriko graduko titulazioen bitartez. Aitzitik, ikertzeko ahalmenak, konpromiso akademiko garrantzitsu batek eta titulazio zein irakasleen akreditazioak emango diote ospe hau. Eragile hauek, jakina, graduondoko titulazioetan eta doktoregoetan dute isla bereziki.

Jokoaren arauak aldatu baitira, EHU egokitu beharko ditu, eta malgutu, oraingo arautegiak. Bide honetatik eragin handiagoa bilatu behar du europar espazioan, eta, barruan, irakaslego, akademi antolakuntza, ikerkuntza, kalitate, ikaslego eta nazioarteko harreman arloen arteko koordinazio eraginkor eta emankorra bermatu.

Gradua. Graduari buruzko dekreturako zirriborroak hirugarren bertsioan daude honezkero, eta inon ez zaie txertatu Estatu Kontseiluaren txostena. Badago, baina, Europa osoan onartzen ari den kontzeptu berri bat, europar kredituarena alegia. Honek irakaskuntza moldatzera eraman behar gaitu, eta oraingo kontzepzioetik, eskolen ematean oinarritzen baita, ikasleen ikas-prozesuetan errotzen den kontzepzio berri batera pasarazi.

Prozesu honek ziurgabetasunak dakartza: prestakuntza eza, biharko titulazioen mapa zehazteko ezintasuna, oraingo unibertsitate eskolek geroko titulazioak ematerakoan jokatuko duten papera... Eta ez hori bakarrik. Gogoan har bedi beste karrera batzuen egitura, filologien kasua adibidez, edo orain arteko diplomatuen gaikuntza profesionala.

Graduondoa. Gauzak dauden moduan, are zailagoa da hau nola gauzatuko den jakitea. Dekreturako zirriborroak laugarren bertsioan daude, eta ANECAk egin gabe dauka unibertsitateek titulazio hauen diseinuan partehartzeko deialdi publiko ofiziala. Edonola ere, zalantzarik ez dago titulazio sendoak diseinatu beharko direla, eduki gaurkotuak izango dituztenak eta berezitasunaren errealitatearekin lotuak egongo direnak. Ikasleei lan-sarbidea bermatu beharko diete, edo ikerkuntzara daramaten kalitateak garatu, edo, hobe, bata eta bestea.

Doktoregoa. Oraingo doktorego programak berrikusi beharko ditugu, eta hala dagokionean, irakaskuntza graduondora pasatu beharko da, doktorego maila ikerkuntzarekin eta doktore-tesietara eramango dituzten gogoeta eta erredakzio prozesuekin lotua gera dadin.

Marko berri honetan, doktoregaiek unibertsitatearen osperako eragileak izan beharko dute. Kalitatezko doktoregoaren labela eskuratzeko estrategiak, tesien zuzendarikidetzak eta europar doktoregoa bultzatzea: hona hemen arlo honetako unibertsitate politikaren gider nagusiak.



## MUNDUAN FRUTUA... UNIBERTSITATE IREKIA

Inguru hurbiletik harantz erreferentzia izan nahi badugu, eta nazioartera irteteko prozesuan politika bat eratzeko asmoz, hiru maila ezberdintzea komeni da: Lehenik eta behin, erakunde maila dugu, unibertsitatearen nazioarteratze politika definitzen duena, campus bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz, eta atzerriko marketing globala garatzen duena. Ikastegi maila da bigarrena, politika orokorrak ikastegi bakoitzean moldatu eta aplikatzen dituen, norberaren titulazioen izaeraren arabera. Hirugarren maila sailei dagokie, egitura osoa zeharkatuz irakasleen eta irakats-programak nazioarteratzen dituen.

Bizi garen munduan, EHUK oinarritzko lau prozesuren argitan ulertu behar du goi hezkuntza: nazioen arteko sareen ehuntzea, mugak gaindituz; unibertsitateen arteko aliantzak, elkarlana bultzatzen dutenak eta errekonozimendu akademikora irits daitezkeenak; garapenerako kooperazioa eta nazioarteko boluntariora (dimentsio hau unibertsitate prestakuntzari gehitu behar zaio, eta EHUK munduko arazoekin konprometitutako unibertsitate bezala agertu behar du); informazioa, akademi-informazioaren zabaltzea errazten duena.

Bere helburuei eusteko, europar bateratzean murgildu behar da EHU. Inguru berrian egokiro kokatuko bagara, hiru arlotan erakutsi beharko da malgutasuna, kontsentsua eta erabakiak hartzeko bizkortasuna: akademi-antolakuntza, irakasleagoa eta ikasleagoa. Epe laburrean, honek SETen ezarrera dakar, ECTS-en erabilera, gradu-graduondo-doktorego ereduak markatzen dituen titulazio berrien zehaztea, irakasle zein ikasleen mugikortasuna bultzatzea, eta atzerrian gure unibertsitatearen presentzia areagotzeko neurriak (besteak beste atzerritarrentzako hizkuntza eta kultura ikastaroak).

Hiru eragile nagusi daude nazioarteratze prozesuan: irakasleak, ikasleak eta Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonala. Bakoitzak bere berezitasunak ditu. Ikasleentzako neurriak hauek dira:

- Beste unibertsitateetan egindako ikasketen errekonozimendua erraztea.
- Tituluen baliokidetzetan bizkorrak izatea.
- Tituluaren europar gehigarria emititzea, ikasketen diplomaren eranskin administratibo moduan.
- Ikasleak beste unibertsitateetan ikasketak burutzera bultzatzea.
- Herri hartzailearen hezkuntza sisteman mugikortasuneko ikasleen integrazioa erraztea.
- ECTS-en erabilera orokortzea gure titulazioetan.

Irakasleei dagokienez, hau egin behar da:

- Hitzarmenen bidezko irakats-aldiak bultzatzea beste unibertsitateetan, eta egindako irakaskuntza errekonozitzeko formulak bilatzea.
- Unibertsitateen arteko irakasleen elkartrukeak bultzatzeko neurri egokiak hartzea.
- Gure hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntza batzuetan ere irakasteko aukera erraztea.
- Beste herrietako irakasleekiko kolaborazioa sustatzen duten deialdi bereziei buruzko informazioa egokiro zabaltzea.

Administrazio eta Zerbitzuen pertsonalean eragina izango duten neurriak:

- Mugikortasuneko programa berezietan partehartzea, eta programak berak bultzatzea.
- Unibertsitateen arteko elkartrukeak erraztuko dituzten neurriak hartzea.
- Hizkuntza prestakuntza garatzea, eta beste unibertsitate-inguru batzuei buruzko ezagutza eman dezakeen prestakuntza ere.
- Deialdi bereziei buruzko informazioa egokiro zabaltzea.

Politika orokorraren neurriak honela aurkez daitezke:

A. Informazio eta koordinazio ekimenak.

- Nazioarteko harremanei eta dauden programa zein deialdiei buruzko gaiak zabaltzeko asmoa duten prestakuntza ikastaro periodikoak egitea.
- Errektoreordetzen koordinazioa, helburuak egokiro lortzeko asmoz.
- Informazio maila eraginkorra bermatzen duten unibertsitate elkartuen datu-baseak garatzea eta mantentzea.
- Atzerritar ikasleen eta pertsonalaren egonaldiak balioesteko programa bat gauzatzea, orientazioa, harrera, jarraipena eta ebaluazioa baloratzuz, hau dena kalitate eskakizunei erantzuteko asmoz.

B. Kolaborazio programak

- Unibertsitate sareetan partehartze ekintzailea (Euskadi-Akitania-Nafarroa; Grupo 9; Compostela Taldea eta beste unibertsitate partzuergoak).
- Ikasle zein irakasleen elkartrukea, eta unibertsitateen arteko kolaborazioa errazten dituzten graduoko programa akademikoak diseinatzea eta gauzatzea. Honetarako, ibilbide komunak izan beharko dituzte.
- EHUren nazioarteko marketinari lagunduko dioten Erasmus Munduak izeneko graduondoko programak garatzea, Europan kalitatezko kolaborazio akademikoaren eredia baitira.
- Hegoamerikan eskainitako graduondoko eta doktoregoko programen ugaltzea, Hegoamerikako Goi Hezkuntzako Unibertsitate Espaziotik datozen ikaslea gureganatzea erraztuko duena.

C. Baliabideak:

- Hiru campusetan eta ikastegietan behar diren giza-baliabide eta baliabide materialak neurtzea eta dotatzea.
- Informazioaren teknologia berrietan oinarritzen diren tresnen garatzea, nazioarteko harremanei buruzko informazioa heltzea ahalbidetuko dutenak.
- Atzerriko ikasleak erakarriko dituzten hizkuntza eta kultura ikastaroak bultzatzea. Jarduera hauek ekar ditzaketen baliabide berriak nazioarteko esparruko beste ekimen batzuk sustatu ahal dituzte.

## UNIBERTSITATEA GIZARTEAN

Unibertsitateak oro har, eta Euskal Herriko Unibertsitatek bereziki, historian zehar eta egoera esanguratsuetan, gizarte zuzenago, askeago eta demokratikoagoa eraikitzen laguntzeko kezka iraunkor ekintzailea erakutsi du. Kezka hau komunitate unibertsitariko estamentu guztietako kideek bultzatutako kontaezinezko ekimenetan gauzatu da. Halere, orain arte bokazio kolektibo honen erakundetzea ez da nahikoa izan. Azken urteotan gure unibertsitatearen dimentsio soziala indartzen duten ekimen zenbait garatu direla (hala Kooperazio Bulegoa edo Elkartasun Fondoa) egia bada ere, ekimen hauek gehiago zor diote banakako batzuen gogoari erakundearen konpromisoari baino.

EHUren eta unibertsitatea errotzen den gizartearen arteko lotura egokiagoa eta zabalagoa nahi dugu, gizarte honen zerbitzura egoteko, hain zuzen ere. Euskal gizarteak, herri baketsu, zuzen eta demokratikoa eraikitzeko erronkari aurre egiten baitio, zeregin horrekin konpromisoa duten herritar ekintzaileak sortzen dituen unibertsitatea behar du. Hauxe dugu helburu nagusia: EHU Euskadin gizarte-kapitala sortzen duen erakunde nabarmena izatea, eta horrelaxe errekonozitua izatea.

Gure gizartean dauden arazo, erronka eta desfioei irmoki aurre egitea ahalbidetuko dioten ekimenak bultzatu behar ditu unibertsitateak, prestakuntzaren arloan, interbentzioarenean edo ikerkuntzarenean, eta, baita ere, elkartasun-edukiez bustitako irakaskuntza emanez. Errektoreordetza honek espiritu irekia dakar bere jaiotzan. Bilgune nahi du izan, gure unibertsitateko sektore guztietatik etor daitezkeen iradokizun eta kolaborazio forma guztiak jasotzeko, entzuteko eta bideratzeko. Irekia egon nahi du, baita ere, perspektiba hauekin identifikatzen diren bete esparru, erakunde, gizarte-talde eta organizazio guztien aurrean. Baina, honekin batera, bere-berea izango den lan-lerro bat definitzeko erabaki sendoa ere badu. Guzti honen ondorioz, EHU gizarte-ardura duen erakunde bezala errekonozitua izan dadin lan egingo du.

2001eko uztailean Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak sortu zuen “Unibertsitatea: gizarte konpromisoa eta boluntariora” agiria erreferentzia moduan hartuta, herritarren partehartzea, elkartasun aktiboa eta boluntariora, komunitate unibertsitariaren prestakuntza, hezkuntza, ikerkuntza eta sentikortzea bultzatuko dituzten ekimenak garatu nahi ditugu.

Ekimen hauek proposatzen ditugu:

- Irakaskuntza egituratua sortzea eta indartzea (hautazko eta aukera askeko irakasgaiak, ibilbideak, doktorego programak, titulu propioak, on line prestakuntza), bolondresak, kooperatzaileak eta hirugarren sektoreko langileak prestatzeko asmoz.
- Gobernu Kanpoko Erakundeekin eta gizarte intereseko aplikazioak garatzen dituzten erakunde zein enpresekin kolaborazio harremanak gauzatzea ikerkuntzaren arloan, tutoregopeko proiektuen, tesien eta txosten berezitzen bidez.
- Unibertsitarien artean, konpromiso herritarra, elkartasun aktiboa eta boluntariora bultzatzea, bai geure programak sortuz, bai beste erakunde batzuetara bideratuz.
- Beste gizarte-eragileekin eta gobernu lokal, autonomiko, estatal eta nazioartekoen atalekin, esperientzia eta ekimen komunak antolatzea.

- UPV/EHU Foroa eratzea; euskal gizartean eragina duten arazo sozialei buruzko gogoetak eta eztabaidak izateko gunea izango da hau.
- Gizarte eztabaida eta arazoekin, hedabideekiko harremanekin eta jakintzaren dibulgaziorako ekimenekin zerikusia duten arloetan jantziak dauden irakasleen direktorio bat sortzea.